

AURKEZPENA

Gu Joanes, Mikel, Ane, Maialen eta Josu gara eta DELTATOR taldea sortu dugu, Startinnovako proiektuan parte hartzeko. Urretxun dagoen ikastetxe bateko ikasleak gara, Urretxu-Zumarraga Ikastolako ikasleak, hain zuzen ere.

Hasiera batean, hainbat proiektu bururatu zitzaizkigun, asko pentsatu ondoren, momentu honetan gizartean ikusten dugun behar garrantzitsu bat asetzen duen proiektuarekin aurrera egitea erabaki genuen.

Urte askotan zehar maiz ikusi izan dugu atzerritarrek zailtasun handiak dituztela euskara ikastolara heltzean. Egoera horrek, amorrua eta tristura eragin zigun, euskara arazo batean bilakatu zelako atzerritarrentzako. Ondorioz, zerbitzu bat sortzea erabaki genuen hau saihesteko. Euskera ama-hizkuntza ez duten atzerritarrek jasoko ahalko duten euskara ikasteko zerbitzua izango da. Horretarako, beste enpresa eta erakundeen laguntzaz baliatuko gara klaseak emateko. Gure proiektuak duen berezitasuna modu tradizionalaz gain beste metodologia batzuk erabiliko ditugula da; hala nola, jokuak, irakurketa... horrela klaseak dibergigarriagoak eta eraginkorragoak izatea espero dugu. Gainera, guztiz doakoa izango da.

